

Egileentzako informazio-gida

- **Jatorrizko lanen bidalketa eta aurkezpena**
- **Estilo-gida**
 - Testuaren edizioa
 - Taulak eta irudiak
 - Tipografia
 - Aipuak
 - Bibliografiari buruzko erreferentziak testuaren barruan
 - Oin-oharrak
 - Laburdurak
- **Bibliografia**
 - Erreferentzia bibliografikoak
 - Erreferentziak idazteko jarraibide orokorrak
- **Argitalpenaren prestaketan zenbait ohar**
- **Argitalpen- eta ebaluazio-prozesua**
- **Argitalpen-prozesuaren atalak**
 - Deialdia
 - Bidalketa
 - Ebaluazioa
 - Argitaratzea
- **Konpromisoak eta baldintzak**
 - Epeak
 - Ustiapen-eskubideak
 - Kode etikoa

Jatorrizko lanen bidalketa eta aurkezpena

Beren lana UEU argitaletxearekin argitaratu nahi duten guztiek posta elektronikoaren bidez egin beharko dute argitalpen-eskaera. Aurkezten diren lanek gida honetan zehaztutako estilo-arauak bete behar dituzte. Horrez gain, egileei eskaera bidali aurretik alderdi hauek egiazta ditzatela eskatzen zaie:

- Lana ez da aldeztu aurretik argitaratu, eta ez da beste argitaletxe batera aurkeztu.
- Bidalitako fitxategia LibreOffice Writer edo Microsoft Word-en testu-dokumentuen formatuan dago (odt docx, rtf...).
- Adituen berrikusketan anonimotasuna bermatzeko, jatorrizko testuaz gain, dokumentuaren pdf-a ere bidaliko zaio UEUri, egilearen edo egileen izenik edo haien identitatea erakusten duen bestelako informaziorik ez duena.
- Lanaren egile guztiek ezagutzen dituzte egile-adierazpenaren, originaltasunaren eta eskubideak lagatzearen baldintzak, eta horiek onartzea inplizituki lotuta egongo da lagapen-kontratuaren sinatzearekin.
- UEUK hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzen eta sustatzen du bere argitalpenetan. Pertsona edo gizarte-talde batzuekiko aurreiritzi edo diskriminazioen adierazpide diren formulazioak saihestuko dira, hala nola generoari, sexu-orientazioari, desgaitasunari, adinari, jatorriari, erlijioari edota sinesmenei lotutakoak. Era berean, emakumeak baztertu, gutxietsi edo iraintzen ez dituen hizkuntza, ahozkoa zein idatzizkoa, erabiliko da, zeinak adierazpide diskriminatzaileak baztertuko dituen —sexu/generoaren arabera gizarteak emakumeei eta gizonei esleitutako ezaugarri, gaitasun eta roletan oinarritutakoak—.

Dibulgazio zientifikoaren konplexutasuna eta gizarte-eragina kontuan hartuta, gure argitalpenen intereseko jakintza-arloetan, arreta berezia jarri behar da estereotipoekin lotutako adierazpenak eta etiketak erabiltzea saihesteko.

- Originalak euskara batuan idatzirik etorriko dira eta Euskaltzaindiak emandako arauetara moldatuta. Aldizkariko hizkuntza-zuzentzaileak artikuluen hizkuntza-zuzentasuna ziurtatzeko beharrezko aldaketak egiteko eskubidea izango du, betiere egileari horien berri emanez.

Egile guztien izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa leku agerian dituztela, argitaratu nahi diren lanak honako helbide honetara bidaliko dira:

UEU. Argitalpen Batzordeko idazkaria

argitalpenak@ueu.eus

Eskaera egiteko zalantzarik edo zailtasunik izanez gero, jarri harremanetan argitaletxearekin:

Erribera 14, 1. D

48005 BILBO

Tel.: 94 679 05 46

argitalpenak@ueu.eus

Estilo-gida

Testuaren edizioa

Liburuak

Liburuen originalak Times New Roman letra mota (11 puntuko tamaina) erabiliz idatziko dira. Testu nagusian txertatutako aipuak 10 puntuko tamaina erabiliz idatziko dira eta oin-oharretako testua 9 puntuko tamaina erabiliz.

Liburuko kapituluaren izenburuak letra xehez, arruntez eta lodiz idatziko dira (Arial 14), erdian lerrokatuta eta zenbakituta (lehen maila: 1.).

Kapituluetako atalburuak letra larriz, etzanez eta lodiz idatziko dira (Times 11), ezkerrean lerrokatuta eta zenbakituta (bigarren maila: 1.1.).

Azpiatalak letra xehez, etzanez eta lodiz idatziko dira (Times 11), ezkerrean lerrokatuta eta zenbakituta (hirugarren maila: 1.1.1.).

Hurrengo azpiatalak letra xehez, etzanez eta arruntez idatziko dira (Times 11), ezkerrean lerrokatuta eta zenbakituta (laugarren maila: 1.1.1.1.).

Ez da punturik jartzen izenburuen amaieran.

Uztaro aldizkariko artikulua

<https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/uztaro/about/submissions>

Bidalketak jarraibide hauetara egokitu beharko dira:

- Lanaren izenburuaren ondoren, egilearen izenarekin batera argitaratu nahi den aurkezpena ere zehaztuko da, adibidez: X Institutuko ikertzailea, Irakaskuntza Ertainetako irakaslea, idazlea, Y Unibertsitatea, Z Unibertsitateko irakaslea, psikologoa... Kargu ofizial eta akademikoak, zehaztu nahi badira, letra xehez idatziko dira: zuzendaria, euskaltzaina, doktorea...
- Lanarekin batera, 100 eta 150 hitz arteko laburpena ere igorriko da, euskaraz eta ingelesez, eta izenburuaren ingelesezko itzulpena. Artikulari dagozkion gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez bidaliko dira (lau gehienez).
- *Uztaro* aldizkarian ohikoak diren jakintza-alarretako zeinetan (Pedagogia, Psikologia, Historia, Antropologia, Hezkuntza, Literatura...) argitaratu gura den adieraziko da.
- 10-25 orrialde inguruko artikulua argitaratuko dira (30.000-65.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta), salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.
- «Liburu-aipamenak» 2-10 orrialde ingurukoak izango dira (6.000-30.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta), salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.
- «Tesi-laburpenak» gehienez orrialde batekoak (3.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta) izango dira, salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.
- Artikuluaren izenburuan, egileen aurkezpenean eta artikuluaren laburpenean ezin da oin-oharrik jarri.

Izenburu, atal eta azpiatalen egitura:

Artikuluaren originalak Helvetica letra mota (10 puntuko tamaina) erabiliz idatziko dira. Testu nagusian txertatutako aipuak 9 puntuko tamaina erabiliz idatziko dira eta oin-oharretako testua 8 puntuko tamaina erabiliz.

Atalburuak, letra xehe lodiz jarriko dira, erdian lerrokatuta (10 pt.).

Azpiatalen buruek ere letra xehe lodia izango dute (10 pt.), baina ezkerrean lerrokatuta egongo dira eta aurrean zenbaki edota letraren bat jarrita.

Azpiatalen barruko zatien buruak, zenbaki edota letrekin hauek ere, letra xehe etzanez idatziko dira (10 pt.).

Zatiak bereziki ugari direnean, zenbaki erromatar eta arabiarrekin, eta letra larri eta xeheekin joka daiteke, buruaren aurrean (1. / 1.1. / 1.1.1. / 1.1.1.a...).

Ez da punturik jartzen izenburuen amaieran.

Osagaiz aldizkariko artikuluak

<https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/osagaiz/about/submissions>

Taulak eta irudiak

Gaiarekin zerikusia duten taulak eta irudiak (ilustrazioak, argazkiak, grafikoak...) sartu ahal izango dira. Irudiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

– Gutxieneko bereizmena: 300 pp-tik gora, gutxieneko kalitatea ziurtatzeko.

– Irudiaren neurria: 10 x 10 cm-tik gorakoa.

– Artxioboaren formatua: TIFF, EPS edo JPG izango da.

Taulen izenburuak eta irudien oinak 10 puntuko letra-tamaina erabiliz idatziko dira. Tauletako goiburuetan eta irudietako izenburuetan edukia deskribatuko da, eta letra lodiz idatziko da. Nahikoa tarte utzi behar da (2 lerroko tarte) taulak eta irudiak testutik bereizteko.

Testu barruko aipuak erraztearren, zenbatuta joango dira: 1. taula, 2. taula... 1. irudia, 2. irudia... Orobat, adibideak, ugari direnean: (1), (2), (3a), (3b)...

Taulen izenburuak taulen gainean, letra xehez, arruntez eta lodiz idatziko dira, ezkerrean lerrokatuta eta zenbakituta (1. taula.). Ez da punturik jartzen taulen izenburuen amaieran.

Irudien izenburuak zein edukiaren azalpenak azpian, letra xehez, arruntez eta lodiz idatziko dira, ezkerrean lerrokatuta eta zenbakituta (1. irudia.).

Inprimatzeko orduan zuri-beltzean agertuko dira. Irudien oinetan, irudiak norberarenak ez badira, ilustrazio horien autorea nor den esan behar da edo, behintzat, irudien iturria aipatu.

Tipografia

- Testuan ahal den gutxien erabiliko dira letra lodia eta azpimarra.

- Letra etzana (eta ez lodia edo larria) erabiliko da zerbait bereziki nabarmendu nahi denean edo beste hizkuntza batzuetako hitzak sartzen direnean euskarazko testuan. Bai eta erabilera metalinguistikoari dagozkionak ere.
- Alboko komatxoak («...») erabiliko dira nagusi gisa, eta bikoitzak (“...”), berriz, bigarren mailako komatxo gisa.
- Hitz solteen edo sintagma laburren itzulpenak emateko inprimategiko komatxo soilak erabiliko dira (‘...’), baita esanahia edo adiera azaldu nahi dutenak biltzeko ere.
- Etenpuntuak (...) hiru puntu dira beti (Ctr + Alt + puntua).
- Marratxoa (-), marra luzea (—) eta minus zeinua (–) bereiziko dira. Lehena hitz-elkarketetan (eguzki-erloju) eta atzizkietan (-keta) erabili ohi da; bigarrena (Word: Alt + 0151 edo Ctr + Alt + -zenbakizko teklatuan) tartekietan (—...—), eta minus zeinua (Word: Alt + 0150) zenbaki negatiboetan (–5 °C).
- Urteek ez dute punturik (2014ko azaroaren 15a), baina zifrek bai (2.500 €). Zifrak idazteko aukera bat baino gehiago egon arren, honako eredu honi lotuko gatzaizkio: milatik gorako zenbaki osoetan, digituak hirunaka multzokatu eta puntuz bereiziko dira; zatiki hamartarrak komaz (15.756.552,172).

Aipuak

- Hitzez hitzeko aipuak laburrak direnean, alboko komatxoen artean («...») idatziko dira (Word: Alt + 174 (zabaldu) eta Alt + 175 (itxi)). Hitzez hitz aipatutako pasarteak, berez, komatxo arteko zatirik badu jatorrizko testuan, orduan beste komatxo mota bat erabili behar da. Hauxe da komatxo moten maila-antolaketa: «aaa“bbb'ccc'bbb”aaa».
- Beste nonbaitetik harturiko aipuak luzeak direnean, lerrokada berezian emango dira, letra arruntez, letra-tamaina txikiagoan (10 puntu) eta ezkerreko alboan koska aterata. Aipua itzulpena denean, jatorrizkoa eskaini nahi duenak orripeko oin-oharretan eman dezake alboko komatxoen artean («...»). Edo nahiago bada, alderantziz.
- Laburrak zein luzeak izanik ere, aipuak oin-oharren barruan eskaini nahi direnean, lerrokada bereizi gabe emango dira, letra arruntez, alboko komatxoen artean («...»).
- Hitzez hitzeko aipuetan zati edo pasarte bat isildu egin dela adierazteko hiru puntuak parentesi artean doaz. Berdin dio zer parentesi mota den, karratua [...] edo normala (...). Isildutako zatiak aipuaren hasieran edo amaieran egon badira, ez da etenpunturik ipini behar.

Bibliografiari buruzko erreferentziak testuaren barruan

- Bibliografiari buruzko aipuak ahal dela testu nagusian sartuko dira, parentesi artean, egilearen deitura (baldin eta autorearen izena diskurtsoaren parte ez bada), argitalpen-urtea eta, hala badagokio, bi puntuen ondoren orrialdea(k) zehaztuz, adibidez: (Mitxelena, 1961, 45-70).
- Egilearen izena diskurtsoaren parte bada, parentesi artean argitalpen-urtea jarriko da eta, hala badagokio, orrialdea(k) bi puntuen ondoren, adibidez: «Mitxelenak (1961, 46 or.) esan zuen bezala...». Orrialde-zenbakirik ez da jarriko, erreferentzia lan osoari badagokio, adibidez: (Mitxelena, 1961 or.).

- Erreferentzia bat baino gehiago eman behar badira, puntu eta komen bidez bereiziko dira eta kronologikoki zaharretik berrienera ordenatuko dira.
- Aipuaren amaierako puntua lanaren erreferentziaren ostean jarriko da.

Oin-oharrak

- Oin-oharrak orrialdearen oinaldean jarriko dira, eta ez dokumentuaren amaieran.
- Oin-oharren bidaltze-marka puntuazio-markaren aurrean jarriko da (...idatzi zuen¹). Esaldi bat komatxoekin amaitzen bada eta ostean puntuazio-marka bat badagokio, oin-oharraren bidaltze-marka komatxoaren eta puntuazio-markaren artean joango da «...idatzi zuen»¹).
- Oin-oharretan, oro har, ez da erreferentzia bibliografikorik eskainiko. Bibliografian sartu nahi ez den zerbait aipatzeko noizbait horrela egin nahi bada, lehenengoz agertzen denean aipatuko da osorik aipatu beharrekoa, eta hurrengoetan bibliografian balego bezala jokatu da, edo *op. cit.*, *ibidem...* eta halakoez baliatuz.
- Arlo bakoitzean ohikoak diren bibliografia-laburdurak erabil daitezke. Bestelakorik erabili behar bada, lehenengoz erabiltzen denean jakinaraziko da bakoitzaren esanahia; asko direnean artikuluko-bukaerako zerrenda batean bil daitezke. Arruntak ez diren sinbolo edo diakritikoak erabiltzen direnean, haien zerrenda erantsiko da.

Laburdurak¹

Oro har, letra arruntez idazten dira laburdurak, eta bukaeran puntua daramate (siglek, akronimoek eta sinboloek ez bezala).

Laburtzen ari den adierazpena letra etzanez idaztekoa bada, letra etzanez idatziko da laburdura ere. Hala gertatzen da beste hizkuntza batzuetako laburdurak erabiltzen direnean. Adibidez, latinezkoak: *et al.* (*et alii*), *ibid.* (*ibidem*), *id.* (*idem*), *N.B.* (*nota bene*), *op. cit.* (*opere citato*), *ap.* (*apud*)...

Badira salbuespen batzuk, dena dela. Testu orokorretan erabiltzen diren latinezko hitz eta laburdura gutxi batzuk mailegu etxekotuak dira, eta lexiko orokorreko hiztegietan agertzen dira. Horregatik, ez dira letra etzanez idazten. Adibidez: *etc.* (*et cetera*), *vs* (*versus*)...

Bestalde, erabilera arrunteko latinezko laburdurak letra arruntez idatzi ohi dira, letra etzanez idatz badaitezke ere. Adibidez: a.m. (*ante meridiem*), p.m. (*post meridiem*), P.D. (*post data*)...

Idem obra bereko eta orrialde bereko erreferentzia emateko erabiltzen da, eta *ibidem* obra bereko baina beste orrialde bateko/batzuetako erreferentziak emateko. Adibidez, (Manterola, 2017, 35 or.) erreferentziaren ostean, (*Ibid.*: 35 or.) erabiltzea ez da egokia, (*Id.*) behar du (obra bera eta orrialde bera = *id.*). *Ibid.* erabili behar da obra bereko beste orrialde bat edo batzuk aipatu behar direnean, esaterako: (*Ibid.*: 40-42 or.).

Salbuespena “vs” da —alegia, versus (‘aurka, kontra’)—; laburdura horrek ez darama punturik.

Sarri erabiltzen diren laburdura batzuk:

adibidea, adibidez	adib.	hurrengoak	hurr.
administratzailea	admtz.	<i>ibidem</i>	<i>ibid.</i>

¹ [196. Araua Euskara Batuaren Ortotipografia \(EBO\) EBO \(I\). Laburtzapenak: laburdurak eta siglak.](#)

argitaratzailea (editorea)	argtz.	<i>idem</i>	<i>id.</i>
aipamena	aip.	ikus	ik.
argitaraldia	argit.	ikus gainera	ik. g.
artikulua	art.	inprimategia	inpr.
berrinprimatzea	berrinpr.	irudia	ird.
bibliografia	bibliogr.	itzulpena	itz.
bolumena	bol.	itzultzailea	itzle.
<i>confer</i>	<i>cf., cfr.</i>	jatorrizko edizioa	jat. ed.
copyrighta	cop.	koordinatzailea	koord.
datarik gabe	d.g.	liburua	lib.
dokumentua	dok.	liburukia	libk.
edizioa	ed.	<i>opus citatum, opera citata</i>	<i>op. cit.</i>
<i>et alii</i>	<i>et al.</i>	orrialdea, orrialdeak	or.
<i>et cetera</i>	etc.	versus	vs
eta abar	etab.	<i>vide</i>	v.
eta hurrengoak	e.h.	zenbakia	zk., zenb.
<i>exempli gratia</i>	<i>e.g.</i>	zenbakirik gabe	z.g.
hurrenez hurren	hr. hr.	zuzendaria	zuz.

Bibliografia

Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak idazteko **APA estiloa erabiltzea aholkatzen da**, 7. edizioaren arabera. Edozein kasutan, ohiko arau formalen arabera aipatuko dira erreferentziak (APA, MLA, Harvard, ISO, Vancouver, etab.) eta erreferentzia guztiak formatu bera eduki beharko dute. Erreferentzia horiek guztiak bibliografia atalean jaso behar dira, besteak beste, liburuak, atalak, aldizkariak, artikulua, kongresuen aktak, webguneak eta abar aipatuko dira.

Osagaiz aldizkarian erreferentziak euskaraz idazteko gida bat dago eskuragarri (<https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/osagaiz/article/view/257>). Medikuntzan gehien erabiltzen den Vancouver estiloan oinarrituta dago, International Committee of Medical Journal Editors (ICMJE) batzordeak proposatutako gomendioei jarraikiz.

Erreferentzia bibliografikoak

Lanak honela agertuko dira, letra arruntak, lodiak eta etzanak, xeheak eta larriak, parentesiak, komak eta puntuak hemen erakusten den moduan jarrita.

Erreferentzia eta aipuen hizkuntza euskara izango da. Erreferentziatu behar den materialaren hizkuntza BETI errespetatuko da baina erreferentzian egingo diren elementuen aipamenak euskaraz izango dira, adibidez :

Nielsen, F. Å., Mietchen, D., & Willighagen, E. (2017). Scholia, Scientometrics and Wikidata. In E. Blomqvist, K. Hose, H. Paulheim, A. Ławrynowicz, F. Ciravegna, & O. Hartig (Argtz.), *The Semantic Web: ESWC 2017 Satellite Events* (10577 libk., 237–259. or.). Springer International Publishing. https://doi.org/10.1007/978-3-319-70407-4_36

APA 7 estiloak egilearen inisiala jartzea hobesten du. Nolanahi ere, egilearen genero-kokapena ikusgai egin nahi denean izena osorik adierazi behar da (besteak beste, emakume egileak ikusgai egiteko, edo bibliografia-iturrien genero-oreka edo genero-desoreka ikusgai egiteko).

1) Liburu inprimatua

Aurreko APA arauetan (6. argitalpena) ez bezala, oraingoan ez da beharrezkoa argitalpen-lekua erreferentzian sartzea.

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean*. Argitaletxea.

Adibidez:

Connor, Walker (1998). *Etnonacionalismo*. Trama.

Edizioaren kopurua liburuaren izenaren ondoren ipintzen da parentesi artean «ed.» laburdura erabilia:

Jaio, Karmele (2012). *Ez naiz ni* (3. ed.). Elkar.

Liburu inprimatu baten kapitulua

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (urtea). Kapituluaren izenburua. In Egilearen izen osoa edo inisiala, Egilearen deitura (argtz. / koord. / ...), *Liburuaren izena letra etzanean* (XX-XX. or.). Argitaletxea.

Adibidez:

Wittig, Monique (2010). Ikuspuntu berezia ala unibertatsala. In Ibon Egaña (koord.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz* (279-288. or.). Utriusque Vasconiae.

2) Liburu elektronikoa

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean* (edizioa). Editoriala. DOI edo URLa

Adibidez:

Lizardi, Xabier (1932). *Biotz-begietan. Verdes-Atxirika*. <https://armiarma.eus/liburu-e/jaitsi?m=kla&f=Xabier%20Lizardi,%20Biotz-begietan.pdf>

Liburu elektronikoen baten kapituluak

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (argitalpen-urtea). Kapituluaren izenburua. In Egilearen izen osoa edo inisiala Egilearen deitura (koord. / argtz. / ...), *Liburuaren izenburua letra etzanean* (xx-xx. or.). Editoriala. DOI edo URLa

Adibidez:

Retolaza Gutierrez, Iratxe (2015). Transmedia-ekoizpenak, narrazio-sareak eta ahots-aniztasuna. In Agurtzane Elordui eta Edorta Arana (koord.), *Transmedia Komunikazio Estrategiak: gaurkotasun-erdiak diseinatze eta hedatzeko bide berriak* (97-118. or.). UEU. <https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/transmedia-komunikazio-estrategiak-gaurkotasun-erdiak-diseinatze-eta-hedatzeko-bide-berriak>

3) Aldizkari baten artikulua

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izena letra etzanean, bolumena*(zenbakia), orrialdea-orrialdea.

Adibidez:

Agirre, Lorea (2010). Joxe Azurmendi: Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok. *Hegats*, (45), 183-214.

DOI identifikatzailea duten artikulua

DOI (Digital Object Identifier), Objektu Digitalaren Identifikatzailea kode alfanumeriko espezifiko bat da, sarean artikulua identifikatzeko eta aurkitzeko. APA arauen (7. arg.) arabera, "DOI:" etiketa dagoeneko ez da beharrezkoa, eta URLen formatu bera dute.

Adibidez:

Ozaeta, A. (1992). Arrasateko testu zahar bi. *Anuario Del Seminario De Filología Vasca "Julio De Urquijo"*, 26(3), 793-800. <https://doi.org/10.1387/asju.8321>

Aldizkariko artikulua ez badu DOIrik, baina URL bat badu (adibidez, datu-base baten zati ez den lineako aldizkari batena), sar ezazu artikulua URLa erreferentziaren amaieran.

Adibidez:

Elustondo, Miel A. (2024). Eva García Magriñá. Fraisoroko espositoen mundua: "Jabetu naiz Fraisoroko espazio ilun eta estigmatizatua argitara emateak garrantzia duela". *Argia*, (2.855), 16-20. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2855/eva-garcia-magrina-fraisoroko-espositoen-mundua>

4) Egunkari baten artikulua

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (Argitaratze data, urtea). Artikuluaren izenburua. *Egunkariaren izena letra etzanean*, or.

Adibidez:

Iraola, Arantxa (2024ko martxoaren 28a). 71.300 biztanle, eta medikurik ez. *Berria*, 5. or.

Online kontsultaturikoa bada:

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (Argitaratze data, urtea). Artikuluaren izenburua. *Egunkariaren izena letra etzanean*, or. <https://URLa>

Adibidez:

Iraola, Arantxa (2024ko martxoaren 28a). 71.300 biztanle, eta medikurik ez. *Berria*. https://www.berria.eus/euskal-herria/erre_2119666_102.html

5) Bilduma, kongresu, jardunaldi edota biltzar bateko komunikazioa, artikulua...

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (urtea). Artikuluaren izenburua. In Editorearen izen osoa Editorearen deitura (argtz., biltz., zuz., koord. [hala badagokio]), *Bildumaren izena* (xx-xx. or.). Argitaletxea.

Adibidez:

Agirrebaltzategi, Paulo (1998). Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorkizunean. In Joseba Intxausti (argtz.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak* (185-20. or.). UPV/EHU.

6) Erakusketa-katalogoa

Egilearen deitura, Egilearen inisiala edo izen osoa (urtea). *Lanaren izenburua* [Erakusketa-katalogoa]. Editoriala. DOI edo URLa

Adibidez:

Pérez Yago, M. T. (2020). *Tecnología educativa del ICE de la Universidad de Zaragoza: evolución del material audiovisual* [Catálogo de Exposición]. Universidad de Zaragoza. Instituto Ciencias de la Educación. <https://doi.org/10.26754/uz.978-84-09-21261-3>

7) Hiztegiko sarrera

Entitate arduraduna. (s.f.). Sarreraren, terminoaren edo hitzaren izenburua. In *Hiztegiaren izenburua*. XXXX(e)ko ...aren XX(e)an hemendik berreskuratua: URLa

Adibidez:

Euskaltzaindia. (d.g.). Arrats. In *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. 2024ko urtarrilaren 28an hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehhe&task=hiztegia&Itemid=1695&lang=eu&mark=134b-

8) Tesia

Egilearen deitura, Egilearen iniziala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Tesiaren izenburua letra etzanean* [Doktore-tesia, Erakundearen izena]. Datu-basearen izena. URLa

Adibidez:

Zubillaga Gomez, Naroa (2013). *Alemanetik euskaratutako haur eta gazte literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. Euskarazko doktorego-tesiak. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Naroa_Zubillaga_TESIA.pdf

9) Master Amaierako Lana

Egilearen deitura, Egilearen iniziala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Lanaren izenburua letra etzanean* [Master Amaierako Lana, Erakundearen izena]. Datu-basearen izena. URLa

Adibidez:

Puertas Ramirez, Oihane (2023). Emakume kirolarien errepresentazioa eta irudia idatzizko prentsan. Traineru estropaden kasua Berria eta El Diario Vasco egunkarietan (2018-2022) [Master Amaierako Lana, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/63668>

Gradu Amaierako Lana

Egilearen deitura, Egilearen iniziala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Lanaren izenburua letra etzanean* [Gradu Amaierako Lana, Erakundearen izena]. Datu-basearen izena. URLa

Adibidez:

Gómez López, Aitor (2019). *Balazta disko baten mekanizazio prozesuaren diseinua* [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/36834>

10) Irudi digitala

Egilearen deitura, Egilearen iniziala edo izen osoa (argitalpen-urtea). *Dokumentuaren izenburua* [Argazkia]. Iturria. URLa

Adibidez:

Gar, Ignacio (1977). *Traineru-erakusketa. Zarauzko Ikurrinaren XXV. urteurrena* [Argazkia]. Zarauzkoartxiboa.org. <http://www.zarauzkoartxiboa.org/DetalleFoto.aspx?lng=eu&i=8&c=arrauna>

11) Podcasta

Egilearen deitura, Egilearen iniziala edo izen osoa (Aurkezlea). (urtea). *Izenburua* [Audio-podcasta]. Ekoiztetxea. URLa

Adibidez:

Irazustabarrena, Nagore (Aurkezlea). (2024). *Oroimen historikoa* [Audio-podcasta]. Argia.eus. <https://www.argia.eus/multimedia/oroimen-historikoa>

Podcastaren atalak:

Irazustabarrena, Nagore (Aurkezlea). (2024ko urtarrilaren 23a). 2x03: Munduko gizon itsusienak [Audio-podcastaren atala]. In *Oroimen historikoa*. Argia.eus. <https://www.argia.eus/multimedia/oroimen-historikoa/2x03-munduko-gizon-itsusienak>

12) Web baten atala edo artikulua

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa edo iniziala (urtea) edo (urtea, hilabetea) edo (urtea, hilabetea, eguna). *Atalaren edo artikulua izenburua*. Webgunearen izena. URLa

Adibidez:

Osasunaren Mundu Erakundea (2021eko azaroaren 17a). *Salud mental del adolescente*. Osasunaren Mundu Erakundea. <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/adolescent-mental-health>

13) YouTubeko bideoak

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa edo iniziala (urtea, hilabetea, eguna). *Bideoaren izenburua* [Bideoa]. YouTube. URLa

Adibidez:

Udako Euskal Unibertsitatea UEU (2024ko urtarrilaren 9a). *Ikerl(h)ari dokumentala_Jose Ramon Etxebarria Bilbao* [Bideoa]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=HLI4xa2AtW4>

14) Blog baten sarrera

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa edo iniziala (urtea, hilabetea, eguna). Sarreraren edo artikulua izenburua. *Blogaren izena*. URLa

Adibidez:

Bereziartua, Gorka (2024ko urtarrilaren 29). Desegokia. *Boligrafo gorria*. <https://blogak.argia.eus/boligrafo-gorria/>

15) Wikipediako artikulua

Artikulua sarrera edo titulua. (azken eguneraketaren urtea, hilabetea, eguna). In *Wikipedia*. URLa

Adibidez:

Ergatibo. (2024ko urtarrilaren 4a). In *Wikipedia*. <https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Ergatibo&action=info>

16) Sare sozialak

Sare sozialetatik hartutako erreferentziak honako eskema honen arabera idatziko dira:

Twitter: Izena. [@erabiltzailea]. (urtea, hilabetea, eguna). *Sarrerako edukia lehen hogeitazetara mugatua, hashtagak barne* [Tuita]. Twitter. URLa

Mastodon: Izena. [@erabiltzailea]. (urtea, hilabetea, eguna). *Sarrerako edukia lehen hogeitazetara mugatua, hashtagak barne* [Tuta]. Mastodon. URLa

Facebook: Izena. (urtea, hilabetea, eguna). *Sarrerako edukia lehen hogeitazetara mugatua, hashtagak barne* [Posta]. Facebook. URLa

Instagram: Izena. (urtea, hilabetea, eguna). *Sarrerako edukia lehen hogeitazetara mugatua, hashtagak barne* [Bideoa, argazkia, istorioa]. Instagram. URLa

17) Ohar orokorrak

Liburu edo artikuluei buruzko oharrik eskaini behar izanez gero, kako zuzenen artean emango da [...], adibidez faksimilea dela argitzeko, berrargitalpen bat dagoela esateko, argitaratzeaz dela zehazteko, itzulpena denean jatorrizkoaren izena emateko...

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (zinta magnetiko, CD-rom...), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen artean [...].

Lege, dekretu, arau eta agiri ofizialen izenak letra arruntez edo biribilez idazten dira, adibidez:

[AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 31koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez jakinarazten baita bertan behera geratzen dela maskararen erabilera unibertsalaren nahitaezotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko osasun laguntza zentroetan, eta gomendio izatera igarotzen dela.](#)

Erreferentziak idazteko jarraibide orokorrak

Hurrenkera alfabetikoan eskainiko da bibliografia, egileen deituren arabera.

Autorerik ez dagoen kasuetan, obraren izenburu osoa sartuko da hurrenkera alfabetikoan.

Adibidez:

[Autafkidun emakumean Italia'n. \(1923-12-09\). *Argia*, 138, 2.](#)

[El motín de las cigarreras. \(1889-3-9\). *El Noticiero Bilbaíno*, 4.596, 1-2.](#)

[Emakumeen autafkia Prantzi'n. \(1922-12-03\). *Argia*, 85, 2.](#)

[Emakumeeri botoa \[Espainian\]. \(1924-04-20\). *Argia*, 157, 2.](#)

Alderantzizko koskarekin (koska frantziarra edo negatiboa) emango dira erreferentziak (erreferentzia bakoitzeko bigarren lerroaren eta hurrengo ezkerreko koskak lehenengo lerroarena baino 1,25 cm eskuinerago)

Adibidez:

Agirrebaltzategi, Paulo (1998). Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorkizunean. In Joseba Intxausti (argtz.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak* (185-210. or.). UPV/EHU.

Egile beraren lanak hurrenkera kronologikoan eskainiko dira, zaharretik hasita; urte batean lan bat baino gehiago baldin baditu, letra minuskula bat sartuko da urtearen ondoren, tituluaren ordena alfabetikoa kontuan hartuta: (Benayas, 2016a), (Benayas, 2016b)...

Adibidez:

Gorosarri, Maria (2021a). *Contra la banalización del feminismo*. Txertoa.

Gorosarri, Maria (2021b). Encuadres de la violencia machista: estudio comparativo de las noticias sobre delitos con víctimas (1996-2016). *Doxa Comunicación*, 32, 75-94.

Abizen bereko egileak ditugunean, izenaren inzialak sartu beharko dira aipuetan: (C. Carrión, 2018) eta (S. Carrión, 2014)...

Egilea bere iturrian **abizen batekin baino gehiagorekin** agertzen bada, guztiak sartzen dira.

Egileak **izen bat baino gehiago** badu, erreferentzia idazteko inzialak erabiltzen badira, inzialen artean tarteak uzten da:

Txoperena Iribarren, Maddi Ane (2022). *Ez erran inori*. Elkar.

Txoperena Iribarren, M. A. (2022). *Ez erran inori*. Elkar.

Egile bat baino gehiago direnean, honela idatziko dira erreferentziak:

Bi egile direnean, «eta» lokailuz bereizten ditugu abizenak, adibidez:

Mentxakatorre Odriozola, Jon eta Astigarraga Pagoaga, Aitzol (2023). *Adimen artifiziala: filosofia eta teknologiaren bilgunea*. UEU.

Aipua: (Mentxakatorre eta Astigarraga, 2023)

Erreferentzia batean hiru egile edo gehiago agertzen direnean, inzialak erabiltzen direnean, koma erabiltzen da egileen izenak bereizteko, bai eta «eta» edo & ikurra ere badu, zerrendako azkena delako.

Arriortua Zorrila, A., Lizardi Ituarte, A., Monforte Del Valle, S., eta Vela Plo, L. (argitaratzaileak) (2022). *Kimu barriak Euskal Hizkuntzalaritzan*. UEU.

Egilearen inzialak idatzi beharrean, izen osoa idazten denean, puntu eta koma erabiltzea izan daiteke aukera egokia erreferentzia argi gera dadin.

Arriortua Zorrila, Alazne; Lizardi Ituarte, Aitor; Monforte Del Valle, Sergio, eta Vela Plo, Laura (argitaratzaileak) (2022). *Kimu barriak Euskal Hizkuntzalaritzan*. UEU.

Aipua: (Arriortua, Lizardi, Monforte eta Vela, 2022) lehen aldiz agertzen denean, hurrengo aipuetan: (Arriortua et al., 2022).

Talde-egileek izen osoa izango dute erreferentzia, laburdurarik eta akronimorik gabe.

Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Emagin (2022). *Araka ditzagun gure bazterrak*. Susa.

GARRANTZITSUA! Testuan aipatzen dituzun iturri guztiak zure lanaren amaierako erreferentzien zerrendan agertu behar dira.

Argitalpenaren prestaketan zenbait ohar

Argitalpen Batzordearen onarpena duen unetik egilearekin adostuko da lana argitaratzeko data. Hurrengo urte naturalaren barruan argitaratzea izango da helburua, hala ere, unean uneko gorabeherak aldatu dezakete data.

Hizkuntza-zuzentasuna ziurtatzeko eta argialetxearen edo aldizkariaren aurkezpen-arauetara egokitzeko, onarturiko lanak aldaketaren bat behar izanez gero, harreman estuan jardungo dira egileak argialetxe idazkaritzarekin. Atzerapenak ekidite aldera, proposatutako zuzenketei erantzuna emateko hilabeteko epea emango zaio egileari. Argitaratu baino lehen, gutxienez birritan hartuko du egileak bere lanaren testu zuzendua maketatua, beharrezko zuzenketa eta aldaketak egin ahal izateko.

Astebeteko epea izango du egileak moldiztegiko probaren testu maketatuan behar diren zuzenketak idazkaritzari jakinarazteko.

Argitalpen eta ebaluazio prozesua

Urrats handiak eman dituzte azken urteetan unibertsitateetako argitalpen-zerbitzuek beren liburu-produkzioaren ebaluazioa kalitate-irizpideen arabera bermatzeko eta, neurri batean, horiek protokolo zehatz eta ageriko batean biltzea baino ez du bilatzen dokumentu honek.

Bere lana Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) argialetxearekin argitaratu nahi duen egileak argi izango du zein den bere lana aztertzeke eta ebaluatzeke UEUK erabiliko duen bidea, eta UEUn argitaraturiko liburua esku artean hartzen duen irakurleak argi izango du zein izan diren liburu horrek argitaratu arte pasatu dituen kalitate-iragazkiak.

Protokolo hau 2015ean abiarazi zen lehenengoz, eta harrezkero izaniko esperientziaren arabera moldatu da.

Argitalpen-prozesuaren atalak

Deialdia

UEUK deialdi bat egingo du urtero, urtarrila eta martxoa bitartean, libururen bat idatzi duten eta UEUn argitaratu nahi duten egileek beren eskariak aurkezteko.

UEUK, bere urteko argitalpen-plana osatzean, lehenetsuna emango die epe horretan eta deialdi horretan aurkezturiko eskariei, eta UEUKo Argitalpen Batzordeak urteroko azaro-abenduan zehaztuko du hurrengo urteko plana, deialdi horretan aurkezturiko proposamenak aztertu eta ebaluatu ondoren.

Dena den, urte osoan ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak, behar izanez gero, deialditik kanpo; horiek ere ebaluazio-prozesu bera izango dute.

Deialdi horretatik kanpo geratuko dira liburu-proiektuak, esan nahi baita oraindik idatzi ez diren liburuak. Horien proposamenak Unibertsitate-liburuen Sorkuntza Sustatzeko Diru-poltsen Deialdira bideratuko dira (oro har, ekainean zabalduko da urtero diru-poltsen deialdi hori eta urriaren hasierara arte izango da aurkezteko epea).

Bidalketa

Honako datu hauek bidali behar zaizkio UEUko Argitalpen Batzordearen idazkariari (argitalpenak@ueu.eus):

- Liburua UEUn argitaratzeko eskaria, behar bezala beteta.
- Egilearen edo egileen CVa, beste dokumentu batean.
- Liburua formatu elektronikoan.
- Liburua formatu elektronikoan, anonimizatua, hau da, egilea identifikatzeko balioko luketen datuak ezabatuta.

Ebaluazioa

UEUren Argitalpen Batzordearen buruak erabakiko du eskari bati dagokion ebaluazio-prozesua abiaraziko den ala ez.

Prozesua abiarazita, Argitalpen Batzordeak arduradun bat izendatuko du, liburuaren jakintza-alorreko UEUkide adituen artean, ebaluazio-prozesuan sartzen den liburu bakoitzarentzat.

Arduradunaren egitekoa izango da liburu horren jarraipena egitea, idazkariarekin batera, liburua UEUn argitaratu arte edo UEUn argitaratzea erabat baztertu arte. Arduradunak jakingo du zein den liburuaren egilea, baina egileak ez du jakingo zein den arduraduna, liburua UEUn ez argitaratzea erabakitzen bada. Arduradun horrek bilatuko ditu, orobat, berarekin batera pareen azterketarako ebaluazioa egingo duten aditu edo adituak (bat gutxienez, bi ahal dela); aditu horiek ez dute jakingo zein den egilea, eta egileak ez du jakingo zein diren ebaluatzaileak (*double-blind*).

Hala UEUko arduradunak nola eduki-ebaluatzaileek liburuari buruzko txostena beteko dute. Azterketa eta ebaluaziorako dokumentu-eredu hauek erabiliko dira:

- 1) UEUko arduradunaren txostena UEUn argitaratu nahi den liburuaz: 03b1 Dokumentua
- 2) Ebaluatzailearen txostena UEUn argitaratu nahi den liburuaz: 03b2 Dokumentua

Argitaratzea

Azterketa- eta ebaluazio-prozesua bukatutakoan, UEUren Argitalpen Batzordeak erabakiko du zein diren interesgarriak UEUrentzat eta zein sartuko dituen bere argitalpen-planean, kontuan izanik aurkezturiko liburu guztiak eta finantzabide-aukerak.

Argitalpen- eta ebaluazio-prozesuaren berri emango da liburuen kredituen orrian honako lerro hauekin:

«Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko bi [/ hiru] adituk ebaluatu dute jatorrizkoa, *peer review* erako ebaluazioan, horietako batek [/ bik] egilearen daturik ezagutu gabe (*double-blind*)».

Jatorrizko lana argitaratzeari edo ez argitaratzeari buruzko erabakia, bai eta alde zuzeneko aldaketekin argitaratu ere, gehienez urte natural horretako irailerako jakinaraziko da. Aldizkarien kasuan aldizkari bakoitzak bere epeak zehaztuko ditu.

Konpromisoak eta baldintzak

Epeak

Liburuaren bidalketa egiteko deialdiaren irekiera- eta itxiera-epeak urtero jakinaraziko dira. Orokorrean, **martxoaren 1etik 31ra** egingo dira. Hala ere, urte osoan zehar lanak aurkezteko aukera ematen da.

Bere aldetik, UEU Argitaletxeak argitalpen-prozesuaren fase guztiak honako epe hauetan egiteko konpromisoa hartzen du:

- Eskuizkribua hartu izanaren jakinarazpena: 10 egun.
- Aurretiazko ebaluazioaren emaitza egileari jakinaraztea: 30 egun.
- Adituek berrikusteko prozesua: 3-5 hilabetekoa.
- Ebaluazioaren emaitzari buruzko jakinarazpena egileari: 20 egun, ebaluatzaileen azken txostena jaso denetik.

Ustiapen-eskubideak

Egileak UEUekin eta balizko beste erakunde batekin sinatutako hitzarmenaren arabera izango da, indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren legeriarekin bat (1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa).

Halabeharrez egileak Jabetza Intelektualaren ustiapen-eskubideen lagapen-kontratu bat sinatuko du UEUekin eta, kasuan-kasuan, elkarkidetzan argitalpenaren ardura hartzen duten beste erakundeekin.

Orokorrean, eskubideak mundu osorako eta hiru urterako ematen dizkio Udako Euskal Unibertsitateari. Ondoren lana deskatalogatuko da eta obraren kopia digitala UEUren liburutegi digitalean eskainiko da, Buruxkak zein beste domeinu baliokideren batean.

Lagapen-kontratua moldagarria bada ere, eredu orokor bati jarraitzen dio, UEUren politika eta helburuekin bat egiten duen **ereduari**.

Kode etikoa

Argitalpen Batzordeak eta argitaletxearen kolaboratzaileek Argitalpenen Etika Batzordeak ([Committeon Publications Ethics](#), COPE) ezarritako Kode Etikoa eta Jardunbide Egokiei jarraitzen diete. UEUko argitalpenen *Argitalpenetarako Jardunbide Gida* kode horretan oinarritzen da.

Azken aldaketa: 2024-02-23